

EGIN

Sagarra 29 pezeta ordainduko da kiloko

- Produktore eta sagardogileen arteko akordioan, Diputazioa arbitro
- Asturiasen 32 pezeta ordaintzen ari dira une hauetan, EHNEk salatzen duenez

Sagarra biltzeko garaia heldu zaie Gipuzkoako baserri-tarrei eta aurtengoan nahiko arazo izan dituzte produktore eta transformatzailek prezioa zehazteko unean. Azkenean, Diputazioaren arbitraia lana dela medio, 29 pezeta ordainduko da kiloko eta guztiek onartu arren, EHNE sindikatuak sagardogileen jarrera gogor salatzen du.

Xole ARAMENDI

Azken 13 urte hauetan lehen aldiz, Gipuzkoako baserri-tarrei eta sagardogileen Mahai Interprofesionalak hiru bilera egin ondoren, sagar prezioaren inguruan akordio batetara iritsi gabe altxatu zen.

Mahai honetan honoko hauek parte hartu dute: produktore eta baserri-tarren aldetik FRUTEL elkarteak, EHNE eta ENBA sindikatuak. Transformatzaileen aldetik, sagardogileen elkarteak eta Taldea sagardogileak. Administrazioa, Gipuzkoako Diputazioak Nekazaritza sailko arduradunak ordezkatu zuen.

Negoziaketak apurtzearen arrazoiak prezioan zetzan, Balentin Gabilondok adierazten duenez: «Produktoreen aldetik iazkoa mantentzea proposatzen zen, 34 pezeta-kiloko, hau 1992ko IPCren igoera kontutan hartuz 36 pezetakoa izango litzateke. Sagardogileek, beren aldetik, 27 pezeta kiloko izatea planteatzen zuten».

«Azken bileran, produktoreek prezioa 34 pezetara jeitsi zuten»-azaltzen dute EHNEtik- eta azken saiakera batetan 33ra jeixteko prest azaldu baziren ere, transformatzaileek 27an mantentzen zuten prezioa. Akordiora iristen ez zirela ikusirik, sagardogileek Administrazioaren arbitraia proposatu zuten eta produk-

toreek, denbora aurrera doala eta sagarra lurrean dagoela ikusirik, onartu egin zuten».

Erabakia

Prezioaz gain, Gipuzkoako Diputazioko Nekazaritza Sailaren erabakiak honoko puntu hauek aipatzen ditu: alde batetik, Gipuzkoako sagar guztia hartzeko konpromezua sagardogileen aldetik. Honekin batera, aurtengo denboraldian sagardoaren salmenta prezio medioa ez igotzea era onartu da. Azkenik, urriaren 30a baino lehen, sagarra saldu nahi duenak sagardogileekin kontaktuan jarri behar du eta egun horretarako sagardogileari ez bazaio abixatzen, sagar hori jasotzen obligaziorik ez du izango.

Guzti honen aurrean, EHNE sindikatuak publikoki salatu nahi du sagardogileen itxitasun ulertezina eta ez ohizkoa, eta produktoreekiko arduragabetasuna.

Kanpoan, garestia

Gipuzkoako sagar produkzioa hiru mila tonelada inguruan dago eta urtez urte kanpora joan beharrean aurkitzen dira sagardogileak, beharrak handiagoak bait dira. Diputaziorik adierazten dutenez, guztira zortzi mila tonelada sagar erabiltzen dira sa-



Bertako sagar produkzioa ez da nahikoa izaten.

ARTXIBC

gardoak egiteko eta noski, kanpora joan ohi dira. Asturias eta Galiza aldera batipat.

EHNEtik azaltzen dutenez, iaz baino 2.5 aldiz altuagoa da gutxi gora behera aurtengo sagar produkzioa, herrialde honetan transformatzen den sagar kopururaren heren bat.

Horrek ere arazoak sortzen ditu, Asturiasen 32 pezeta ordaintzen bait da kiloko, sindikatuak gogor kritikatzeko duelarik kanpoko sagarra bertakoa baino garestia ordaintzea.

Azkenik, esan, uzta biltzeko data, urriaren 4ra aurreratzea onartu zela eta sagar bilketan saiakera berezia egingo dela, ustelik iritsi ez dadin.

Balentin Gabilondok garrantzitsutzat jotzen du sagar produkzioaren bidez baserri-tarrek lortzen duten diru sarrera: «Bizibide nagusia izan ez arren, lanbide osagarria da, kontutan izanik gainera Beterri, Urola eta Goierri aldean esne produzitzaileak momentu larriak pasatzen ari direla».